



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak ekoizpen jasangarri bihurtu du *Orgia*, denboraldi honetako mundu mailako opera estreinaldi handia

- *Orgia* operaren eszenografiaren % 50, gutxienez, birziklatutako materialez osatuta egongo da eta erabiltzen diren elementuen % 65 beste ekoizpen batzuetan erabiliko dira.
- European Theatre Convention (ETC) —ia 60 antzoki biltzen dituen eta Arriaga Antzokia kide duen Europako antzokien sarea—, Green Book bat garatzen ari da, kulturaren deskarbonizazioan laguntzeko parametro batzuk finkatzeko.
- Arriaga Antzokiak Europako ekimen horretan parte hartze aktiboa izatea erabaki du, eta ETCko 'Green Comitee-an' parte hartzen du beste zortzi antzokirekin batera. Batzorde horretan, arte eszenikoen esparruan Green Book-a aplikatzeko bideak aztertzen ari dira.
- *Orgia* Hèctor Parrak konposatutako opera berri bat da, Pasoliniren izen bereko lanean oinarritzen dena, eta Bilboko Arriaga Antzokiak, Gran Teatre del Liceu eta Castell Peralada Jaialdiak koproduzitzen dutena.
- Calixto Bieito libretoaz arduratu da, eta baita ekoizpen handi hau zuzentzeaz ere, zeinetan Ausrine Stundyte, Leigh Melrose eta Jone Martínezen ahotsak, eta Ensemble Intercontemporain prestigiotsuaren interpretazioa izango baititugu.
- Arriaga Antzokian opera honen mundu mailako estreinaldia izango dugu ekainaren 22an eta 24an: gertakizun handia izango da lirikaren munduarentzat.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 15a.- Arriaga Antzokiak arte eszenikoen eremuari aplikatutako jasangarritasunaren aldeko pauso bat ematea erabaki du, eta zera erabaki du, *Orgia* —mundu mailako estreinaldia ekainaren 22 eta 24rako programatuta duen opera— European Theatre Convention (ETC) prestatzen ari den Green Book-aren parametroen mende jartzen den lehen ekoizpen propioa izatea.

Horrela, bada, Arriaga Antzokiaren, Gran Teatre del Liceu-ren eta Castell Peralada Jaialdiaren arteko koprodukzio honen eszenografiaren % 50 birziklatutako edo berrerabilitako materialekin egingo da. Adibidez, muntaia honetan, iaz Arriaga Antzokiko beste ekoizpen batean erabilitako agertokiaren zati bat erabiliko da, *Erresuma/Kingdom/Reino* antzezlanarena, hain zuzen; *Orgian* bezala, Calixto Bieito izan zen muntaia haren zuzendaria. Arriagaren ekoizpena den *Johannes Passion* obraren beste ekoizpen baten elementu batzuk ere berrerabiliko dira. Horrez gain, bigarren eskuko arropa eta atrezzoko elementu batzuk erosiko dira tokiko saltokietan.

Gainera, ekimen honekin bat egiteari lotuta, Arriaga Antzokiak konpromisoa hartu du hurrengo ekoizpen propioetan, gutxienez, *Orgian* erabiltzen diren elementuen % 65 berrerabiltzeko. Neurri horien helburua da ETCren Green Book-ak bere hiru lan-

arloetako bakoitzerako eskatzen duen lehen maila edo oinarrizko maila betetzea. Lan-arloak honako hauek dira: ekoizpenak (Arriagaren lehen parte-hartze honen ardatz den esparrua), eraikin jasangarriak eta operazioak, cateringarekin, logistikarekin edo bidaiekin lotutakoak. Hiru arlo horietako bakoitzak hiru ezarpen-maila edo -estandar ditu: oinarrizkoa (% 50 birziklatzea), erdi-mailakoa (% 75 birziklatzea) eta aurreratua (% 100 birziklatzea). Helburua da sakontzen jarraitzea, 2030ean ahalik eta birziklapen mailarik handiena lortzeko. ETCK eta bere Green Book-ak emango dizkiete dagozkien ziurtagiriak Europako antzokiei, neurriak Europako Batzordearekin koordinatuz.

ETCren Green Book-ari buruz

European Theatre Conventioek Europako ia 60 antzoki biltzen ditu, eta Green Book bat egiten ari da, Europako Batzordearen babesarekin, bere sareko antzokien beharrak eta profilak aintzat hartuz. Arriaga Antzokiak parte hartze aktiboa du prozesu horretan, eta ETCK Green Book-aren garapena aztertzeko eta haren kontzeptuak arte eszenikoen esparruan nola aplikatu daitezkeen ikusteko sortu duen Green Comitee delakoaren parte da. Bederatzi antzokik osatzen dute “batzorde berde” hautatua.

ETCren Green Book-aren jatorria Britainia Handian sortutako ekimen batean dago: Theatre Green Book izenekoan. Eskuliburua jendaurrekoa eta doakoa da, eta pandemian zehar sortu zen, Erresuma Batuko antzerkiaren alor guztietako adituen eta profesionalen ekarpen altruistek esker. Bere helburua, antzerkia pixkanaka deskarbonizatzeko oinarriak ezartzea zen, gida praktikoa baten bidez, zeina mota guztietako antzoki eta konpainientzat eskuragarri egongo baitzen, estandar eta parametro komun batzuk proposatuz.

European Theatre Convention aspalditik ari da lanean Theatre Green Book-eko koordinatzaileekin harreman estuan, eta ETC Green Book sortzeko lehen faseari ekin dio, aipatutako Green Comitee horren bultzadarekin. Liejako Antzokiak (Belgika) abiarazita, eta Theatre Green Book-en sortzaile eta koordinatzaile diren Paddy Dillon eta Lisa Burger buru direla, European Theatre Convention-en Green Committee-ak aldizkako bilerak egiten ditu. Biler horietan, alde batetik, arte eszenikoei aplikatutako jasangarritasunaren arloko alderdi praktikoei buruzko prestakuntza jasotzen da, Green Book-a Europarako egokitzen laguntzen da eta Green Book-ean gomendatutako neurriak ezartzen dira. Green Committee-ko antzoki guztiak gida ezartzen ari dira une honetan, bakoitza maila batean. Arriaga Antzokiak ekoizpen jasangarrien eremura bideratzen du bere jardueran, eta *Orgia* da horretarako aukeratutako proiektua.

Joan den ostiralean, maiatzaren 12an, Arriaga Antzokiak 2023ko European Theatre Forum foroan parte hartu zuen. Europako Batzordeak bultzatutako ekimen horretan, ibilbide-orri berria aurkeztu zen, Europako antzerki-sektorea jasangarriagoa eta bidezkoagoa izan dadin, eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko hobeto prestatuta egon dadin. European Theatre Forumak erabaki zuen oraingo honetan ETCK antolatu eta koordinatuko zuela ekitaldia, udaberri honetan Poloniako Opole hirian egin duen Konferentziaren barruan. Arriaga Antzokia joan den ostiraleko hitzaldietako baten protagonista izan zen, eta bertan *Orgiaren* proiektuaren berri eman zuen. Arriaga Antzokia Europako antzerki-foroaren gai-zerrendan sartu izanak nazioartean duen posizionamendua islatzen du beste behin ere.

Jasangarria... eta mundu mailakoa!

Orgiaren izaera “jasangarria” ekoizpen horrek duen beste alderdi erakargarrietako bat da; izan ere, ekainean (hilaren 22an eta 24an) egingo den mundu mailako estreinaldia denboraldiko gertakizunetako bat da, zalantzarik gabe, eta nahitaezko hitzordua da egutegi lirikoan.

Orgia opera berri bat da, zeina Hèctor Parrak propio konposatu baitu, Bilboko Arriaga Antzokiak, Gran Teatre del Liceu eta Peraladako Jaialdiak eskatuta. Hiru erakundeak dira ekoizleak. Libretoa eta zuzendaritza eszenikoa Calixto Bieitok egin ditu, eta ikuskizuna hiru abeslarirentzat eta puntako instrumentu-taldearentzat pentsatuta dago. Munduan ospetsua den Pariseko Ensemble Intercontemporain da talde hori. Mundu osoan ospetsua den taldea 1976an sortu zuen Pierre Boulez musikagile, orkestrazuzendari eta intelektual handiak.

Orgia Pier Paolo Pasoliniren antzezlan zirrargarrian oinarrituta dago. Abeslari bakarlariei dagokienez, Ausrine Stundyte soprano lituaniar paregabea izango dugu agertokian, Leigh Melrose baritono ingelesarekin batera. Biak ala biak entzutetsuak dira egungo lirikan, eta lehenago ere lan egin dute Bieitorekin. Haiekin bat egingo du Jone Martínez sopranoak. Aurretik ere gozatu izan dugu Martínezen ahotsaz, Arriaga Antzokiaren beste ekoizpen batzuetan parte hartu baitu, besteak beste, Bieitok berak zuzendutako *Vivaldi, poema para cuerda y dos voces* lanean, edota orain gutxi taularatu zen *Moto-Membra Jesu Nostri* ikuskizunean.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 eta 45 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Orgia

Pier Paolo Pasoliniren *Orgia* antzezlanean oinarrituta.

Musika: **Hèctor Parra**.

Eszena zuzendaritza eta libretoa: **Calixto Bieito**.

Ahots bakarlariak: **Ausrine Stundyte, Leigh Melrose, Jone Martínez**.

Musika-taldea: **Ensemble Intercontemporain (Paris)**.

Zuzendaria: **Pierre Bleuse**.

Koprodukzioa: **Teatro Arriaga Antzokia, Gran Teatre del Liceu, Castell Peralada Jaialdia**.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus